

Ekainaren 17ko 389/1996 FORU AGINDUA, ziurtagiriak jaso, luzatu eta emateko prozedurari nahiz agiriak alderatzeko eginkizunaren antolamenduari buruzko jarraibidea onartzen duena.¹

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

¹ Xedapenaren titulu hau, ekainaren 17ko 389/1996 Foru Agindua aldatzen duen ekainaren 4ko 485/1999 FORU AGINDUAren bat apartatuak aldatu du. GAOan bere osoan argitaratu eta hurrengo hogeit hamar egunetara sartu da indarrean. (GAO 1999-06-14)

Maiatzaren 21eko 24/1991 Foru Aginduz onespena eman zitzaion Ogasun eta Finantza Departamentuak egiten dituen ziurtagiriak jaso, luzatu eta emateko prozedurari buruzko Jarraibideari.

Departamentuko Zerbitzuak berrantolatu izanak eta baliabide material berriak sartzeak komenigarria egiten dute arlo honen inguruan erregulazio berria aurrera eramatea.

Horiek horrela,

XEDATU DUT

Artikulu bakarra.

Ziurtagiriak jaso, luzatu eta emateko prozedurari buruzko Jarraibidea, Foru Agindu honetan Eraskin bezala azaltzen dena, onarturik geratzen da.

ERASKINA

Ziurtagiriak jaso, luzatu eta emateko jarraibidea.

Lehen Erregela. Arau orokorrak.

Bere kudeaketaren ondorioz Ogasun eta Finantza Departamentuari eskatzen zaizkion ziurtagiriak jaso, luzatu eta emateko prozedurak normalizatzea da jarraibide honen xedea.

Eskumenak ematea eta funtzioak garatzea era berezitan egingo da hurrengo fase hauetako bakoitzerako:

- Eskaerak jaso eta erregistratzea.
- Ziurtagiriak prestatu eta luzatzea.
- Ziurtagiriak ematea.

Jarraibide honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ziurtagiri araututzat hartuko dira programa informatiko baten euskarria dutenak eta, aldiz, arautu gabeko ziurtagiritzat hartuko dira programa informatiko baten euskaririk ez duten ziurtagiriak.²

² Paragrafo hau ekainaren 17ko 389/1996 Foru Agindua aldatzen duen ekainaren 4ko 485/1999 FORU AGINDUaren bi apartatuak gehitu du. GAOan bere osoan argitaratu eta hurrengo hogeit hamar egunetara sartu da indarrean. (GAO 1999-06-14).

Bigarren Erregela. Normalizaziorako proposamenak.

Ziurtagiriak luzatzeko eskudun diren Departamentuko organoek proposatuko diete Zuzendari Nagusiei gehien eskatu eta eredu standar baten bidez prestatu daitezkeen ziurtagiri motak. Proposamenarekin batera ziurtagiri eredu tipoa aurkeztuko dute, bertan egin litezkeen aldaketak adieraziz.

Normalizazio proposamenen kopia bat Informatika Atalera bidaliko da. Hemen, eta bakoitzari kode zenbaki bana ezarriz, proposatutako ereduak sailkatuko dira eta fase bakoitzean jarraituko beharreko prozedurak proposatuko, igorpen sistema telematikoa ere barne.

Zuzendari Nagusiek onartu beharko dute ziurtagirien ereduak normalizatzea ziurtagiriak luzatzeko eskudun diren organoek eta Informatika Atalak aurkeztutako proposamenen arabera.

Hirugarren Erregela. Eskaera eta erregistroa.³

Ziurtagirien eskaerak interesatuak berak aurkeztu ahal izango ditu, dela zuzenean, operadore telematiko baten bidez, edo behar bezala kreditaturik nahiz Ordezkarien Erregistroan inskribaturik dagoen ordezkari baten bitartez, eta baita herri administrazioek ere dagokion hitzarmena izenpetzen dutenean.

Eskaera bide hauetako bat erabiliz aurkeztu ahal izango da:

—Erabiltzaile baimenduen esku jarritako prozedura telematikoak, beti ere Ogasun eta Finantza Departamentuak interneteko www.gipuzkoa.net/ogasuna helbidean dituen programak erabiliz.

—Postaz, telefonoz, faxez edo aurreko apartatuan aipatu ez den beste prozedura telematiko baten bidez.

—Zuzenean Ogasun eta Finantza Departamentuaren edozein bulegotan.

Ezinbestekoa izango da interesatuaren edo ordezkariaren identitatea ziurtagiria zarpigarren erregelari ezarritakoaren arabera eman aurretik frogatzea. Ez da hala izango, ordea, ziurtagiria interesatuaren zerga helbidera postaz eta hartu izanaren agiriarekin bidaltzea aukeratzen denean.

Eskaera jasotzen duten kudeaketa zerbitzuek, eta horien ezean, Ogasun eta Finantza Departamentuko bulegoetan jendaurrean dauden unitateek erregistratuko dituzte ziurtagirien eskaerak.

Eskaera orrian ziurtagiria eskatzen duen interesatuaren Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, izen-abizenak edo sozietate izena eta zerga helbidea agertuko dira gutxienez, eta, hala badagokio, baita ordezkariaren Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, izen-abizenak edo sozietate izena ere.

Eskatzaileak hala adierazten badu, ziurtagiria eskatu izanaren frogagiria emango zaio.

³ Erregela hau, Ekainaren 12ko 612/2002 Foru Agindua, ekainaren 17ko 389/1996 Foru Agindua, ziurtagiriak jaso, egin eta emateko prozedurari eta agirien erkaketa lanen antolamenduari buruzko jarraibidea onartzen duena, aldatzekoaren Bat apartatuak aldatu du. Ekainaren 21 sartzen da indarrean. (GAO 2002-06-20)

Laugarren Erregela. Ziurtagiriak luzatzeko ahalmena duten organoak.

Zerbitzu eta Zerga Bulego desberdinetako Buruek dute, beren eskumeneko gaien barruan beti ere, ziurtagiriak luzatzeko ahalmena, maiatzaren 30eko 3/84 Foru Arauaren 34. artikulua Departamentuko Idazkaritza Teknikoari izaera orokorrean ematen dion ahalmenaren kaltetan gabe.

Ziurtagirien ereduak normalizaturik daudenean, Departamentuko zerga bulegoburuek eta Informazio, Erregistro eta Agiritegi atalburuak ere haiek luzatu ahal izango dituzte, gaia edozein izanik ere.

Bosgarren Erregela. Ziurtagiriak luzatzean sinadura delegatzea eta zentsuak egiaztatu eta ziurtagiriak prestatzeko lanak banatzea.⁴

Ziurtagiriak luzatzeko eskudun diren organoek beren menpeko funtzionarioen esku utzi ahal izango dute sinadura, baina dagokion Zuzendari Nagusiari horren berri eman beharko diote.

Ordezko sinaduraz luzatzen diren ziurtagirien idazpuruan organo eskuduna zein den agertu beharko du, eta ordezkotza jaso duen funtzionarioaren identifikazioa sinaduran adierazi, «ordezko sinadura» oharra azalduz.

Ziurtagiriak luzatzeko eskudun diren organoek zentsuak egiaztatu eta ziurtagiriak prestatzeko beren unitatearen barruan zein pertsona aukeratu duten jakinarazi beharko diote Informatikako atalbururi, haren izena eta kodea adieraziz.

Seigarren Erregela. Ziurtagiriak prestatu eta luzatzea.

Ziurtagiri normalizatuak «HCER» transakzioak erabiliz egingo dira kasu guztietan, ziurtagiri mota bakoitzerako ahalik eta aprobetxamendurik handiena lortuz.

Edozein modutara ere, ziurtagiriak luzatzeko eskudun den organoak bere arduraren izango du haien edukina dauden zentsuetara ongi egokitua izatea, eta bidezko irizten dituen egiaztapen eta kontrol baliabideak ezarri ahal izango ditu.

Ziurtagiriak behin prestatuta, berehala emango dira, oro har, normalizatuta badaude. Normalizaturik ez badaude, eskuan emateaz arduratzen den bulegoari helaraziko zaizkio edo postaz bidaliko dira.⁵

Zazpigarren Erregela. Ziurtagiriak ematea.⁶

⁴ Lehen zegoen bigarren paragrafoa, Ekainaren 12ko 612/2002 Foru Agindua, ekainaren 17ko 389/1996 Foru Agindua, ziurtagiriak jaso, egin eta emateko prozedurari eta agirien erkaketa lanen antolamenduari buruzko jarraibidea onartzen duena, aldatzekoaren Bi apartatuak indarririk gabe utzi du. Ekainaren 21 sartzen da indarrean. (GAO 2002-06-20)

⁵ Paragrafo hau, Ekainaren 12ko 612/2002 Foru Agindua, ekainaren 17ko 389/1996 Foru Agindua, ziurtagiriak jaso, egin eta emateko prozedurari eta agirien erkaketa lanen antolamenduari buruzko jarraibidea onartzen duena, aldatzekoaren Hiru apartatuak aldatu du. Ekainaren 21 sartzen da indarrean. (GAO 2002-06-20)

⁶ Erregela hau, Ekainaren 12ko 612/2002 Foru Agindua, ekainaren 17ko 389/1996 Foru Agindua, ziurtagiriak jaso, egin eta emateko prozedurari eta agirien erkaketa lanen antolamenduari buruzko jarraibidea onartzen duena, aldatzekoaren Lau apartatuak aldatu du. Ekainaren 21 sartzen da indarrean. (GAO 2002-06-20)

Ziurtagiria nola jaso nahi den eskaera aurkezten den unean adierazi beharko da. Interesatuaren zerga helbidera postaz bidaliz eman ahal izango da ziurtagiria, interesatuak adierazten duen helbidera postaz igorritik, bere identitatea behar bezala egiaztatu ondoren, edota interesatuari edo ordezkariari eskuan emanez. Interesatuaren edo ordezkariaren identitatea frogatzeko erabiltzen diren baliabideek aukera eskainiz gero, ziurtagiria bide telematikoz emateko eskatu ahal izango da.

Aukera espresurik adierazten ez bada, eskuan emango da ziurtagiria.

Ondoko hauek jaso ahal izango dute eskuan ziurtagiria:

—Interesatuak zuzenean, behar bezala kreditaturik dagoen ordezkariak edo Ordezkarien Erregistroan inskribaturik dagoen pertsonak. Ziurtagiria ematen duen funtzionarioak interesatuaren identitatea egiaztatu beharko du, ordezkari-tza krediturik dagoela edo ordezkaria Ordezkarien Erregistroan inskribaturik ageri dela.

—Interesatuarentzako frogagirian ziurtagiria jasotzeko baimendun gisa ageri den pertsonak. Honek, gainera, interesatuaren Nortasun Agiriaren edo antzeko dokumentuaren kopia aurkeztu beharko du. Kasu honetan, baimena eman dela eta behar bezala sinatuta dagoela egiaztatu beharko da.

Bi kasuetan, ziurtagiria ematen duen funtzionarioak nortasun agiria erakusteko eskatuko dio jasotzaileari.

Zortzigarren Erregela. Ordezkarien erregistroa.

Zerga ziurtagiriak eskatzeko baimendutako ordezkari eta pertsonen erregistroan inskribatzeko jarraitu beharreko prozedura uztailaren 3ko 559/1992 Foru Aginduan araututa dago.

Operadore telematikoen erregistroan inskribatzeko, ekainaren 495/1998 Foru Aginduan jasotako prozedurari jarraituko zaio. Aitorpenak bide telematikoz aurkezteko baimenduta dauden profesionalak, foru agindu horren 1. artikuluan aipatuek, ziurtagiriak eskatzeko ahalmena izango dute halaber.

Herri administrazioak ziurtagiriak prozedura telematiko bidez eskatzeko zerbitzuaren erabiltzaile gisa erregistratu daitezke. Horretarako, datuak emateko hitzarmena sinatu beharko dute, eta bertan informazio-hartzaileak bete beharreko baldintzak finkatuko dira.⁷

Bederatzigarren Erregela. Agiriak alderatzea.⁸

⁷ Bigarren eta hirugarren paragrafo hauek, Ekainaren 12ko 612/2002 Foru Agindua, ekainaren 17ko 389/1996 Foru Agindua, ziurtagiriak jaso, egin eta emateko prozedurari eta agirien erkaketa lanen antolamenduari buruzko jarraibidea onartzen duena, aldatzekoaren Bost apartatuak gehitu ditu. Ekainaren 21 sartzen da indarrean. (GAO 2002-06-20)

⁸ Erregela hau ekainaren 17ko 389/1996 Foru Agindua aldatzen duen ekainaren 4ko 485/1999 FORU AGINDUAren Lau apartatuak gehitu du. GAOan bere osoan argitaratu eta hurrego hogeit egunetara sartu da indarrean. (GAO 1999-06-14).

Eskaera, idatzi eta agiriekin batera herritarrek Ogasun eta Finantza Departamentuan aurkezten dituzten agiriak ondorengo zerbitzu eta unitateetan lan egiten duten langileek alderatuko dituzte:

A) Oro har:

—Departamentuko erregistro orokorrean eta erregistro osagarrietan.

—Departamentuko Idazkaritza Teknikoan, Zerbitzu Teknikoen Atalaren bidez.

B) Gaiaren arabera:

—Departamentuko zerbitzu desberdinetan, beren eskumeneko gaien arabera.

Lehenengo Erregela Gehigarria.

Departamentuko Zuzendari Nagusiek onetsi beharko dituzte, jarraibide honekin batera agertuko diren eraskinen bitartez, luzatu beharreko ziurtagiri normalizatuen zerrendak eta dagozkien eredu standarrak. Ziurtagiriak luzatzeko eskudun diren organoek ere onartu ahal izango dituzte, gaiaren arabera edo delegazioz, aipatu ziurtagiri eta ereduok.

Bigarren Erregela Gehigarria.⁹

Onarturik geratu da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta herri administrazio interesatuek zerga alorreko informazioa internet bidezko zerga ziurtagiriez emateko sinatuko duten lankidetzak hitzarmenaren eredia.

Amaierako Erregela.

Jarraibide hau argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera izango da aplikagarria.

⁹ Erregela hau, Ekainaren 12ko 612/2002 Foru Agindua, ekainaren 17ko 389/1996 Foru Agindua, ziurtagiriak jaso, egin eta emateko prozedurari eta agirien erkaketa lanen antolamenduari buruzko jarraibidea onartzen duena, aldatzekoaren Sei apartatuak gehitu du. Ekainaren 21 sartzen da indarrean. (GAO 2002-06-20)

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru aginduak izan dituen aldaketak jasotzen dira:

- *Ekainaren 4ko 485/1999 FORU AGINDUA, ekainaren 17ko 389/1996 Foru Agindua aldatzen duena. (GAO 1999-06-14)*
 - Xedapenaren titulua eta Bosgarren erregelako bigarren paragrafoa aldatzen ditu, eta Lehenengo erregelari hirugarren paragrafo bat eta Bedaratzigarren erregela bat gehitzen ditu.
- *Ekainaren 12ko 612/2002 Foru Agindua, ekainaren 17ko 389/1996 Foru Agindua, ziurtagiriak jaso, egin eta emateko prozedurari eta agirien erkaketa lanen antolamenduari buruzko jarraibidea onartzen duena, aldatzekoa. (GAO 2002-06-20)*
 - Hirugarren erregela eta Zazpigarren erregelako hirugarren paragrafoa aldatzen ditu; Seigarren erregelako hirugarren paragrafoa indarrrik gabe uzten du; eta Zortzigarren erregelari bigarren eta hirugarren paragrafoak eta Bigarren Xedapen Gehigarri bat gehitzen ditu.